## GIPUZKOAKO ARTISTA BERRIEN 2013-2014 PROGRAMA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuaren bitartez, Gipuzkoako artista gazteen sormen artistikoa bultzatu eta aintzat hartzeko asmoarekin, artista berrien ohiko lehiaketaren edizio berritua aurkeztu du. XLV. edizio honetan bi urteko lehiaketa izatetik programa iraunkor bat izatera pasatzen da Gipuzkoako arte garaikidearen sormena eta ekoizpena sustatzeko, bi modalitate desberdinetan egituratuta.

## PROGRAMA DE ARTISTAS NOVELES DE GIPUZKOA 2013-2014

La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de su Departamento de Cultura, Juventud y Deporte, en su intención de proporcionar estímulos y reconocimiento a la creación artística de jóvenes artistas guipuzcoanos y guipuzcoanas, presenta una edición renovada del tradicional certamen de artistas noveles. En la presente edición XLV se pasa de un concurso bienal a un programa continuado de apoyo a la producción y la difusión del arte actual en Gipuzkoa, estructurado en diferentes modalidades.

## ERAKUSKETA MODALITATEA

Gipuzkoako Artista Berrien 2013-2014 erakusketa hau ohikoa izan den "finalisten erakusketa" ordezkatzera dator. Egitasmo horren hasiera-hasierako ezaugarria zen hogei bat artista obra bakar baten bidez ordezkatuta izatea. Orain, formula horren ordez, ahalbidetuko da beren lana sakontasunez erakusteko interesa duten 7 artisten praktikak aldi berean aurkeztea. Euren arteko lotura da, hasiera batean, gure lurraldera murriztua egon den lehiaketa publiko batean parte hartu izana eta adin tarte zehatz batekoak izatea.

Betidanik hartu izan da Artista Berrien erakusketa hori Gipuzkoako artearen egoeraren neurgailu modura, baina oraingo Artista Berrien Erakusketak ez du izan nahi diagnostiko emaile soila eta horren ordez esperimentazio gune berria proposatzen ari gara, non lekua izango duten gorputz eta zentzumen esperimentazioak, hala nola alderdi kognitiboak. Hori guztia, forma, irudi, soinu eta giro desberdinak sortuz teknikaren bidez eta barne leku zehatz bateko baldintzetara egokituta -KOLDO MITXELENA Kulturuneko erakusketa aretora, hain zuzen-, horrexek mugatuko baitu esperientziaren nondik norakoa.

Gune horretan egongo dira: marraztutako hainbat forma eta egitura, arkitektura eta eskulturaren hasierara eramango gaituztenak (Julen Agirre Egibar); beste forma multzo bat gorputzari interpelatzen diotenak, neurri eta itxuraren zitazio desbideratuaren bidez (Oier Iruretagoiena); objektu multzo bat, inguratzen gaituen gunearen ikuspegia aldarazteko asmoa duena (Sahatsa Jauregi); film zatien multzo bat espazioan barrena ipinita eta bere baliabide narratiboak bilatu nahian (Antonio Macarro); imaginario baten berreraiketa -ideia eta gauzaren arteko distantzia- errepresentazioaren mekanismoekin duen konpromisotik abiatuta (Daniel Mera); ikusi eta entzuteko gune bereziak, bideoaren berezitasunaren inguruan sortutakoak (Mikel Otxoteko); "subjektu sutsuen" imajinatutako multzo baten erakustaldi grafikoa (Ainize Sarasola).

Eta hori guztia, autonomia eta dependentziaren artean dagoen halabeharrezko tentsioaren barruan.

Aimar Arriola
Artista Berrien 2013-2014 Programako komisarioa

## MODALIDAD EXPOSICIÓN

La exposición 2013-2014 de Artistas Noveles de Gipuzkoa reemplaza la tradicional "muestra de finalistas" que ha venido caracterizando la iniciativa desde sus orígenes, en la que una veintena de artistas era representada mediante una única obra. Esta fórmula da ahora paso a la presentación conjunta de la práctica de 7 artistas quienes desean realizar una exposición en profundidad de su trabajo, cuyo vínculo, a priori, sigue estando limitado al hecho de haber participado en una convocatoria pública restringida a un territorio y un corte de edad determinados.

Tradicionalmente considerada como indicadora del estado del arte actual en Gipuzkoa, la presente edición de la Exposición de Artistas Noveles quiere resistirse a ser leída como emisora de diagnósticos; en su lugar, se propone como un espacio de experimentación corporal, sensorial y cognitiva, a través de un conjunto de formas, imágenes, sonidos y ambientes, producidos técnicamente y sujetos a las condiciones de recepción de un espacio interior dado –la sala de exposiciones de KOLDO MITXELENA Kulturunea–, que establece los límites donde se puede dar la experiencia.

El espacio incluye: una serie de formas y estructuras dibujadas que se sitúan en el umbral de la arquitectura y la escultura (Julen Agirre Egibar); otro grupo de formas que interpelan al cuerpo a través de la citación desviada de su medida y apariencia (Oier Iruretagoiena); una colección de objetos que aspira a transformar nuestra percepción del entorno material circundante (Sahatsa Jauregi); una serie de fragmentos fílmicos instalados en el espacio buscando explorar sus posibilidades narrativas (Antonio Macarro); la reconstrucción de un imaginario –la distancia entre la idea y la cosa– a partir del compromiso para con los mecanismos de la representación (Daniel Mera); ambientes de recepción retiniana y auditiva construidos en torno a la especificidad del vídeo (Mikel Otxoteko); el despliegue gráfico de una multitud imaginada de "sujetos ardientes" (Ainize Sarasola).

Todo ello sometido a la inevitable tensión entre autonomía y dependencia.

Aimar Arriola
Comisario Programa de Artistas Noveles 2013-2014

## ERAKUSKETA

**2013ko azaroaren 28tik 2014ko otsailaren 22ra**

**ORDUTEGIA**

Asteartetik ostiralera 16:00-20:00 | Larunbatetan 11:00-14:00 | 16:00-20:00
Igande eta jaiegunetan itxita
Bisita gidatuak: kmbisitagidatuak@ereiten.com

## EXPOSICIÓN

**Del 28 de noviembre 2013 al 22 de febrero de 2014**

**HORARIO**

De martes a viernes 16:00-20:00 | Sábados 11:00-14:00 | 16:00-20:00
Domingos y festivos cerrado
Visitas guiadas: kmbisitagidatuak@ereiten.com

**KOLDO MITXELENA KULTURUNEA**

Erakustaretoa | Sala de exposiciones
Urdaneta 9. 20006 Donostia/San Sebastián | T. 943 112 750 | kmk.gipuzkoakultura.net

KM
kulturunea

2014
2013
arteleku
XLV

# ARTISTA BERRIEN PROGRAMA de ARTISTAS NOVELES

Julen Agirre Egibar Oier Iruretagoiena Sahatsa Jauregi
Antonio Macarro Daniel Mera Mikel Otxoteko Ainize Sarasola

ERAKUSKETA | EXPOSICIÓN

arteleku
2014
2013
XLV

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

# EKOIZPEN MODALITATEA

Hiru ekoizpen proiektu berri hautatu dira, haien interesa eta bideragarritasuna kontuan hartuta, eta 2014. urtean gauzatu eta aurkeztuko dira. Gauzatze prozesuan Artista Berrien 2013-2014 Programako komisarioaren elkarlana eta laguntza izango dute. Hautatutako proiektuak:

# MODALIDAD PRODUCCIÓN

Se han seleccionado tres proyectos de producción de nueva realización, en base a su interés y viabilidad, que se realizarán y presentarán a lo largo de 2014. Contarán en su ejecución con el apoyo y acompañamiento del comisario del Programa Noveles 2013-2014. Proyectos seleccionados:

## IVAN GOMEZ

### "Aparato#1 · Calcetines para caballeros de lana"

"[...] hemen nire asmoa da kontuan hartzea irudikapenen eta horien mendeko tresnen existentzia materiala, halakotzat hartuta funtzio baten euskarri diren gailuak. "Aparato #1 · Calcetines para caballeros de lana" proiektuak edukiaren eta edukitzailearen arteko tentsioak fokalizatuko ditu ikus-entzunezko tresnari dagokionez; proiektatutako piezak bideoinstalazio izaera izango du."

Ivan Gomez (Irun, 1984. Hondarribia eta Bilbo artean bizi eta lan egiten du.
http://www.ivangomez.net/

## IVAN GÓMEZ

### "Aparato#1 · Calcetines para caballeros de lana"

"[...] mi interés aquí es atender la existencia material de las representaciones y sus aparatos subalternos, entendiendo por tal los dispositivos que sustentan una función. En concreto "Aparato #1 · Calcetines para caballeros de lana" focalizará las tensiones entre contenido y continente para con el aparato audiovisual; la pieza proyectada tendrá el carácter de videoinstalación."

Ivan Gómez (Irún, 1984). Vive y trabaja entre Hondarribia y Bilbao.
http://www.ivangomez.net/

## LAS CHICAS DE PASAIK TALDEA

### "Encuentros"

"Ahotsak eta ahozkotasunak irudi filmikoan eta bideoan [...] duten paperaren inguruan pizten ari zaigun gero eta interes handiago horrek [...] bultzatuta, "Encuentros" proiektuarekin "amodioaren" inguruan sakondu nahi dugu [...] elkarrizketa eta nolabaiteko dramaturgia abian jartzeko bitarteko gisa."

Las chicas de Pasaik taldea Maider Fernandez Iriartek (1988) eta Maria Elorza Deiasek (1988) osatzen dute. Donostian bizi dira eta bertan lan egiten dute.
http://mariaelorza.com / http://maiderfernandez.tumblr.com/

## LAS CHICAS DE PASAIK

### "Encuentros"

"Impulsadas por [...] nuestro interés creciente en el papel de la voz y de la oralidad dentro de la imagen fílmica y el vídeo [...], con "Encuentros" deseamos indagar sobre el "amor" [...] como medio para poner en acción el diálogo y una cierta dramaturgia."

Las chicas de Pasaik son Maider Fernandez Iriarte (1988) y Maria Elorza Deias (1988). Viven y trabajan en San Sebastián.
http://mariaelorza.com / http://maiderfernandez.tumblr.com/

## IRKUS (M) ZEBERIO

### "G.R.€.Z.I.A"

"Nire asmoa da etorkizuneko Greziari (zientzia-fikzioa oraina da beste ezer baino gehiago) buruzko marrazki eta istoriotxo labur batzuk (1) sortzea 80ko hamarkadako sci-fi amerikarraren estiloan | Antzerki greziarra."

(1) Komikiari buruz dudan ikuspegia: Idazkerak, pinturak edo musikak bezala, komikiak bere lengoaia propioa du eta ikuspegi askotatik ekin dakioke, ez bakarrik Aristotelesek aldarrikatzen zuen hasiera-korapiloa-amaiera egitura klasikotik. Marrazkitik heltzen bazaio, komikiak aukerak zabaltzen ditu, besteak beste poesiara, saiakerara edo performancera hurbilduz. Komikia ez da zinemagile frustratuentzat, lengoaia plastiko sekuentziala da, eta horrela lantzen dut. Marrazkiaren ikuspuntutik.

Irkus (m) Zeberio (Martutene, Donostia, 1982). Bartzelonan bizi da eta bertan lan egiten du.
http://www.irkus.net/

## IRKUS (M) ZEBERIO

### "G.R.€.Z.I.A"

"Mi intención es crear una serie de dibujos e historietas cortas (1) sobre una futura Grecia (la ciencia ficción es más presente que otra cosa) al estilo sci-fi americano de los 80 | Teatro griego."

(1) Mi visión sobre la historieta: Al igual que la escritura, la pintura o la música, el cómic tiene su propio lenguaje y es abordable desde muchos más puntos de vista que el aristotélico clásico principio-nudo-desenlace. Atacándolo desde el dibujo, el cómic amplía horizontes acercándose a la poesía, el ensayo o la performance entre otros. El cómic no es para cineastas frustrados, es un lenguaje plástico secuencial, y como tal lo trabajo. Desde el punto de vista del dibujo."

Irkus (m) Zeberio (Martutene, Donostia-San Sebastián, 1982).
Vive y trabaja en Barcelona.
http://www.irkus.net/

# JARDUERA PROGRAMA

Erakusketa eta Ekoizpen modalitateekin batera, Artista Berrien 2013-2014 Programak jarduera publiko batzuk ditu, Ebaluazio Batzordeak berak sortutakoak eta Programaren aurtengo edizioko parte hartzaileei bereziki zuzendutakoak.

# PROGRAMA DE ACTIVIDADES

En paralelo a las modalidades de Exposición y Producción, el Programa de Artistas Noveles 2013-2014 integra un sistema de actividades públicas concebidas por la Comisión Evaluadora y dirigidas de manera especial a todos los participantes de la actual edición del Programa.

## AURKEZPENAK

### "Komunikazio publikoa"

Partaideak: Julen Agirre Egibar, Oier Iruretagoiena, Sahatsa Jauregi, Antonio Macarro, Daniel Mera, Mikel Otxoteko eta Ainize Sarasola; Aimar Arriolak proposatuta.

Koldo Mitxelena – Erakustaretoa eta Areto Nagusia
Abenduak 26 eta Urtarrilak 3
Ez da aldez aurretik izena eman behar. Argibide gehiago:
http://kmk.gipuzkoakultura.net/

"Komunikazio publiko" terminoaren kontzeptu juridikoa Jabetza intelektualaren legean jasota dago eta honela definitzen da "pertsona talde bati lanaren ale bana aurrez eman beharrik izan gabe, lana jendaurrean erakusteko egintza da". Premisa horretatik abiatuta, Artista Berrien 2013-2014 Programako Erakusketan parte hartzen duten zazpi artistek erantzun librea ematen diote bere lan prozesuak jendaurrean komunikatzeko erakundearen aldetik jaso duten eskaerari.

Legearen arabera -erregela eta arau oro gisa, hautsi daitekeena-, komunikazio publiko bat honela gauzatu daiteke: "obra zinematografikoetan, fonografikoetan eta ikus-entzunezkoetan jasotako lanen proiekzio edo erakusketa publikoa eginez", "jatorrizkoaren nahiz erreprodukzioen erakusketa publikoa eginez", "hari bidezko edo hari gabeko prozeduren bidez lanak jendearen eskura jarriz", besteak beste. Hemen zalantzan jarri nahi dira egintza artistikoari dagokionez aurrez ezarrita dauden irisgarritasun, bitartekaritza eta ikusmineko nozioak.

## PRESENTACIONES

### "Comunicación pública"

Con la participación de Julen Agirre Egibar, Oier Iruretagoiena, Sahatsa Jauregi, Antonio Macarro, Daniel Mera, Mikel Otxoteko y Ainize Sarasola, a propuesta de Aimar Arriola

Koldo Mitxelena – Erakustaretoa y Areto Nagusia
26 de diciembre y 3 de enero
Sin inscripción previa. Más información:
http://kmk.gipuzkoakultura.net/

El concepto jurídico de "comunicación pública" está definido en la Ley de propiedad intelectual como "el acto por el cual una pluralidad de personas puede tener acceso a una obra, sin que sea necesaria la previa distribución de ejemplares de la misma". A partir de esta premisa, los siete artistas participantes en la Exposición 2013-2014 del Programa de Artista Noveles dan libre respuesta a la demanda recibida por parte de la institución de comunicar de forma pública sus procesos de trabajo.

De acuerdo a la ley –regla y norma, y como tal, sujeta a ser quebrada– una comunicación pública puede realizarse: "mediante la proyección o exhibición pública de las obras incorporadas en obras cinematográficas, fonográficas y audiovisuales", "mediante su exposición pública, tanto del original como de sus reproducciones", "mediante la puesta a disposición al público de estas obras por procedimientos alámbricos o inalámbricos", entre otros medios. Lo que aquí se pretende es poner en cuestión nociones preestablecidas de acceso, mediación y expectación en relación con el hecho artístico.

### LEHENENGO KOMUNIKAZIOA EMANALDIAK

Abenduaren 26a, osteguna, Areto Nagusia
19:00etatik 20:30etara

"Tarot Nights"
2013 (22 min) Ainize Sarasolarena

"A Filme – Expedición"
(77 min) Antonio Macarrorena

### PRIMERA COMUNICACIÓN PROYECCIONES

Jueves 26 de diciembre, Areto Nagusia
De 19:00 a 20:30h

"Tarot Nights"
2013 (22 min), de Ainize Sarasola

"A Filme - Expedición"
(77 min), de Antonio Macarro

### BIGARREN KOMUNIKAZIOA ARETOAN EGINGO DIREN JARDUERAK:

Urtarrilaren 3a, ostirala, Erakustaretoa
16:00etatik 20:00etara

Julen Agirre Egibar, Oier Iruretagoiena, Sahatsa Jauregi, Daniel Mera eta Mikel Otxoteko.

### SEGUNDA COMUNICACIÓN ACCIONES EN SALA

Viernes 3 de enero, Erakustaretoa
De 16:00 a 20:00h

Julen Agirre Egibar, Oier Iruretagoiena, Sahatsa Jauregi, Daniel Mera y Mikel Otxoteko.

## MINTEGIA

### "Reflexiones sobre el sistema (del arte)"

Peio Aguirreren eskutik

Arteleku
2014ko urtarrilaren 16a | 16:00etatik 20:00etara
2014ko urtarrilaren 17a | 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara
Izena ematea eta argibide gehiago: www.arteleku.net

Mintegi honetan landu nahi dira artista ororentzat edo artearen praxisean inplikatutako ororentzat funtsezkoak diren zenbait gai; autokontzientzia eta erreflexibilitate kritikoa, sistemaren kontzientzia hartzea, profesionalizazioaren paradigmak, instituzioa, merkatua eta galeria sistema, kritikaren zeregina eta komisarioa eta komisarioak arte-instituzio horren osagai gisa ezinbestean onartzea. Ekoizpen artistikoaren bilakaera kapitalismoaren garapenarekin batera gertatu da; beraz, edozein praktika artistiko birpentsatu nahi denean ezinbestekoak dira "lan ez-material edo kognitiboa", "postprodukzioa", "bitartekaritza" eta "ikerketa", eta "globalizazioa" bezalako gaiak. Mintegi honek arte-instituzioaren konplexutasunetan argi egin nahi du, horien ulermena eta kritika sustatuz. Mintegiak parte hartzaileen inplikazio aktiboa lortu nahi du, arte-sistema honen irudi edo errepresentazio bat egiteko.

Peio Aguirre arte kritikaria, komisario independentea eta editorea da.

## SEMINARIO

### "Reflexiones sobre el sistema (del arte)"

A cargo de Peio Aguirre

Arteleku
16 de enero 2014 | De 16:00 a 20:00h
17 de enero 2014 | De 10:00 a 14:00h y de 16:00 a 19:00h
Inscripción y más información: www.arteleku.net

Este seminario pretende tratar algunas cuestiones fundamentales para cualquier artista o agente implicado en la praxis del arte; la autoconciencia y la reflexibilidad crítica, la toma de una conciencia del sistema, los paradigmas de la profesionalización, la institución, el mercado y el sistema de galerías, la labor de la crítica y la inevitable asunción del comisariado y los/las comisarios/as como parte integral de esa misma institución-arte. La producción artística ha evolucionado de manera paralela al desarrollo del capitalismo de manera que cuestiones como "trabajo inmaterial o cognitivo", "post-producción", "mediación" e "investigación", y "globalización" resultan fundamentales cuando se trata de repensar cualquier práctica artística. Este seminario pretende arrojar luz sobre las complejidades de la institución-arte fomentando su comprensión y también su crítica. El seminario busca una implicación activa por parte de los participantes en aras a esbozar una imagen o representación de ese sistema-arte.

Peio Aguirre es crítico de arte, comisario independiente y editor.

## BARNE TOPAKETA PUBLIKOA

### "Analphabet Orkestra"

Larraitz Torresek proposatuta

Arteleku
2014ko otsaila
Izena ematea eta argibide gehiago: www.arteleku.net

Programa labur modura, proposamen honek lan prozesu baten edo gehiagoren fase ezberdinak azalduko ditu, eta horrela sakonduko da proiektuaren eta emaitzaren artean, diskurtsoaren eta praktikaren artean, barne praktikaren eta praktika publikoaren artean dagoen distantziaren inguruan; eta margen horien arteko eraldaketaren garrantziaren inguruan.

Analphabet Orkestra* izango da landuko den proiektuetako bat: lengoaia berri bat asmatzeko beharretik abiatuta (orain artekoa analfabetoa baita), aldi berean, gorputz beretik, eta beste batzuen ondoan hartzaile eta igorle izateko aukera ematen duen mekanismo bat proposatzen da. Zatikatzea taldean esperimentatzen da eta adimenen malgutasun bat bultzatu nahi du.

Larraitz Torres artista da.

(*) Analphabet Orkestra Larraitz Torresen performance bat da, eta aurrez Cascon (CasCo-storefront, Utrecht) eta Marfa Sumerschoolen (Texas) praktikan jarria izan da, beti desberdinak diren konfigurazioetan.

## ENCUENTRO INTERNO Y PÚBLICO

### "Analphabet Orkestra"

A propuesta de Larraitz Torres

Arteleku
Febrero 2014
Inscripción y más información: www.arteleku.net

A modo de corto programa, esta propuesta desplegará las diferentes fases de uno o varios procesos de trabajo, y así se ahondará en la distancia entre proyecto y resultado, entre discurso y práctica, entre práctica interna y pública; y en la importancia de la transformación, entre estos márgenes.

Analphabet Orkestra*, será uno de los proyectos en los que se trabaje: a partir de la necesidad de inventar un nuevo lenguaje (por ser este analfabeto) se propone un mecanismo donde poder ser receptor y emisor al mismo tiempo, desde un mismo cuerpo, y al lado de otros. La fragmentación se experimenta en grupo y quiere dar lugar a potenciar una flexibilidad de entendimientos.

Larraitz Torres es artista.

(*) Analphabet Orkestra es una performance de Larraitz Torres, practicada anteriormente en Casco (CasCo-storefront, Utrecht) y en Marfa Summerschool (Texas), en configuraciones siempre distintas.